

**EUSKAL HERRI DIGITALA**

**LABELIZAZIO PROZESUA**

**Baimen baldintzak labelaren erabilpenerako**

**« EUSKAL HERRI DIGITALA »**

**[www.euskalherridigitala.net](http://www.euskalherridigitala.net)**

## Aurkibidea

Aitzinsolasa	3
1 – « Euskal Herri Digitala » labelaren baloreak	5
2 – Euskal Herri Digitalaren helburuak	6
3 – Abantailak labelizatuarentzat	7
4 – Labelaren emakidaren iraupena	8
5 – Labelizazio prozesua	9
6 – « Euskal Herri Digitala » labelaren erabilpen baldintzak	9
7 – Argitalpenaren edukina eta itzulpena	10
8 – Erantzukizunak	10
9 – Labelaren erreprodukzio eta aipamenaren modalitateak	10
10 – Itun grafikoa eta komunikazio elementuak	11
11 – Labearen ateratzea	12
12 – Baimen Batzordearen zeregina	12
13 – Harreman eta argibideak	12

### Aitzinsolasa :

Egoera ekonomikoak ezagutzen duen aldakuntzak osagai berri bat agerrarazi du : inmateriala. Alabaina, jagoitik, eragileak « ezagutzaren ekonomian » murgiltzen dira, eta bertan, inmateriala da arrakastaren giltza. Beste molde batez erranik, enpresen balorea, hemendik at, abstraktuan oinarritzen da. Lehiarako gai izanen da, berritzailea agertuko dena, kontzeptuak eta ideiak sortzen jakinen dituen.

Testuinguruaren bilakaera hau, parte batetan, IKTen garapenari lotua da, honek enpresei antolakuntza aukera berriak eskaini baitie, baita balio erantsi azkarragoko eginkizunetan zentratzea ere.

Jakiteak, egiten-jakiteak, ezagutzak eta talentuek dituzte gaurogitik aktibo inmaterialak osatzen. Hauei, historia, geografia, lurraldeen kultura gehitzen zaizkie eta ezinbestekoa da hauetarik aberastasunak ateratzea.

Marko horretan, aNTIC Pays basquek 2004an abiatu du tokiko garapenerako eragile guzrien edo Euskal Herrian IKTetan inplikatuak direnen gogoeta kolektiboari esker, « Euskal Herri numeriko bat elgarren artean eraikitzeko » gogo mobilizatzaile komun bat agertu da.

Euskal Herriko lurralde osoan, teknologi numerikoen hedapena artamendatzeko gogo agertu den garai baten ondotik, irekitzen da beste bat nun lurralde eta ekonomia mailako eragile, edota biztanleengandik ere, ITKez jabetzeko beharrak biziki garrantzitsuak gertatu diren.

Gainera, Euskal Herriak bere baitan, benetako abantailak osatzen dituzten nortasun eta kultur baloreak daramatza. Haien babesa, haien hedapena eta haien balioztatzea dira lurraldearen ikusgarritasuna eta lehiakortasuna hobetuko dituzten hainbat ekintza.

Helburua da, beraz, gaur egun potentzialak adieraztea, proiektuak laguntzen, berrikuntza sustatu eta balorizatzen, euskal gizartearen zati bakoitzaren kalitate igoera eta garapena segurtatzen lagunduko duen egoera emankor bat sortzea.

Lurralde numerikoa bilakatzeko gogo agertuz, Euskal Herria sartzen da, beraz, irekidura eta tokiko garapen dinamika batetan. Gaiaren garrantzia emendatuak eta indarren arteko koherentzia handiago baten beharrek hurbiltze berri bat sortu dute, eragileen ontzeari egokituagoa, emankorra eta eraginkorra duen efektu sustatzailea eta mobilizatzailearen bidez : hau pixkanaka ekimen guzrien marka bateratzaile bat bilakatuko den « Euskal Herri Digitala ».

Helburua da Euskal Herria haren azpiegitura, ekipamendu, zerbitzuetarako sarrera baldintzak, aktibitate ekonomiko eta hezitzaileen egituraren bitartez aurkeztea, baita haren biztanlerien bizi moduen bitartez, « Informazioaren Gizartea » kontzeptuak agerpen konkretu bat ezagutuko lukeen lurralde baten gisa.

Ezaupide bereizle batzuk (izena, logoa, [www.pays-basque.eu](http://www.pays-basque.eu) urtekariaren gunea, etab.) materializatzen duten « Euskal Herri Digitala » labela, IKTak efektu sustatzaile eta biderkatzaile gisan erabiltzen dituzten praktika onak agerian jartzeko marka kolektibo bat da, lurraldearen kalitate igoera lortzeko. Lurraldearen ezaugarriak bilakatzen diren balore azkarrez ere osatua da, haren nortasuna, egiazkotasuna eta hizkuntzan oinarrituak.

Marka honen kudeaketaren garapena modernizazio tresna izugarria izaten da. « Euskal Herri Digitala »k, ekimenean sartuak diren eragile sozio-ekonomikoen berezitasuna erakutsiko du, berrikuntza sustatuko du eta lurraldearen dinamika ekonomikoa eta sozialaren sinboloa izanen da, haren erakargarritasunaren garapena horrela lagunduz.

« Euskal Herri Digitala » labelaren helburua da euskal lurraldeak erakutsi nahi duen bikaintasuna eta haren energien ugaritasuna. Geroztik, labelaren kargu kahiera errespetatzen eta gogo komunara hurbiltzen den gertakari, argitalpen, Internet gune orok lortuko du marka kolektibo honen erabilpen eskubidea eta haren ezagutarazten lagunduko.

« Euskal Herri Digitala » markaren laguntzarekin, eta [www.pays-basque.eu](http://www.pays-basque.eu) urtekariaren garapena eleaniztun moldean, Euskal Herriaren presentziak eremu numerikoan koherentzian irabaziko du, kezka numerikoaren presentzia haren garapenerako eremu ezberdinetan askoz irakurgarriagoa bilakatuko da.

Urtekari honi esker ere, « Euskal Herri Digitala » markaren kalitatea kudeatzen ahalko da, eta haren babesaren segurtatu gehiegizko erreferentzien aurka borrokatzeko, kolektiboki ezagupenik ez duten nozio batzuetan oinarrituz.

« Euskal Herri Digitala » labela ez da beraz, batzuen jabetza besteak saihesteko, baina bai aktibitateak, talentuak, bazkideak... erakartzeko ikusgarriagoak bilakatu nahi duten lurraldeen arteko lehiaketa azkarragoa eta zabalduaren ikuspegiarekin, Euskal Herria Interneten « ikustera » eman nahi den marka kolektibo bat.

Berrikuntza eta balore sinonimoa eta ekimen kolektibo baten ondorioa den « Euskal Herri Digitala »k azkenean sareka ibiltzearen garapena azkarki lagunduko du, hau baita inmaterialaren ekonomiaren zutabea.

« Euskal Herri Digitala » labelak behar luke osatu, ondokoa lagunduko duen dinamika bat :

- Lurraldeak bereaz duen barne ikuspegia erreberritzea
- Lurraldearen eskaintza aldatzea (nola nahikoa izanik ere) kalitatean igotzeko

« Euskal Herri Digitala » aNTIC Pays basquek pausatu duen eta INPIk, 2004ko urriaren 13an, 04 3 318 833 zenbakipean grabatu duen marka bat da.

aNTIC Pays basquen zeregina da, « Euskal Herri Digitala » labelaren abiatze fasean, ekimenaren idazkaritza segurtatzea, 80 pertsona baino gehiago mobilizatu baititu 2005eko urria eta 2006ko abenduaren artean.

## 1 – « Euskal Herri Digitala » labelaren baloreak


2005eko bukaeran deituak izan eta, lurraldeko eragileek « Euskal Herri Digitala » labelaren balore proposamenak egin dituzte. Zonbait tematika agertzen dira, baina orokorki, Euskal Herri numerikorako balore proposamenak ingurumena / gizonak / ohidurak eta egiazkotasun gisako lurraldearen ezaugarriei estuki lotuak dira.

Horrek, markaren barne baloreetan bezain bat kanpo baloreetan agertzen den dualtasun bat sortzen du balore proposamenetan, « ohidura » eta « gaurkotasun »en artean.

Horretan datza « Euskal Herri Digitala »ren erranahi osoa, aktoreek azken hau horrela kokatzen dutenean :

- Ohidurak eta informazioaren gizartearen arteko igarobide bat,
- Izendatzaile komun bat, ondasun komun bat,
- Euskal Herriaren irudiaren zati bat kanpora buruz.

Ekimenean sartu diren eragileek hautatu dituzten baloreak ondoko grafikoan agertzen dira :



« Baloreak » 1. xantierreko lanek benetako akordio bat agerrarazi dute ondoko baloreen inguruan : « irekidura » (Euskal Herriko eragileak destrenkadatzeko eta hurbilarazteko), « sarea » baloretik pasatuz (eragile hauek sarean sartzea garapen eredu gisa) « kalitatea » eta « bikaintasuna » baloreekin bukatzeko, azken hau, Euskal Herriaren garapen iraunkorarako, guzien artean lortu behar dugun zeruertzen sinboloa delarik.

Geziak, « Euskal Herri Digitala » labelaren inguruan bilduak diren Euskal Herriko eragileek burutu behar duten mugimendua adierazten du : besteei ireki sarean lan egiten ikasteko kohesioan irabazteko eta lurralde hau besteengandik karakterizatuko duen eremu numerikoan lortu beharreko kalitate igoera kausitzeko.

« Irekidura », « nahikeria », « nortasuna » eta « sarea » baloreak deskribatzeko terminoak, lurralde marka honen inguruan abiatua izan den dinamikan kohesio eta elkartasun nozio azkarrak begiratzeko asmoz balidatuak izan dira. Ebaluaketa eta engaiamendu iraunkorra nozioak « kalitatea » baloreari gehituak izan zaizkio.

« Bikaintasuna» hitza berriz landua izan da « erreaktibotasuna, eraginkortasuna, segurtasuna, errespetua, balentria, onarpena eta eredu-garritasuna » elitismo nozioak saihestuz baina lurraldearen oreka eta kalitate iraunkor goi-maila baten zerbitzuko den kohesioa sustatuz.

Ekimenaren eragileek burutu beharko duten mugimendua (« irekidura » balorearen pasaia « Bikaintasun » balorera) beti ere nortasuna, egiazkotasuna, kohesioa eta nahikeria baloreak hedatu eta zaintzeko kezkarekin egingen da. Alabaina, nahiz eta « Euskal Herri Digitala »k kalitatea lehenesten duen berrikuntza, irekidura eta bikaintasunaren bitartez, lurraldearen kultura eta nortasuna hertsiki lotuak zaizkio

Euskara, beraz, markaren osagai nagusi bat da. Alabaina, honen sustapenerako guziek egin indarrek Euskal Herri Digitala labelaren elementu inplizitu bat osatzen dute. Ekimenaren « zementu » gisakoa den euskarak, labelaren beste baloreekin markaren oinazpikoa osatzen du.

## 2 –Euskal Herri Digitalaren helburuak

Egoera ekonomikoak sekulako aldaketa jasaten du. Ezagutzaren ekonomiarako igarotze horrek izaera ezberdinetako aktibo inmaterialak sorrarazi ditu, hauen artean inmaterial teknologikoa (ziurtagiria, egiten jakite...) eta irudimenari lotua dena (adib : marka).

Ondorioz, enpresa edo lurralde baten balorea « hunkituezina » den ondare batetan ere, ez bada gehiago, oinarritzen da : baloreak, nortasun bat, gaitasun sortzaile bat, berrikuntza bat, irudi bat... Marko horretan, « Euskal Herri Digitala »k haren zentzu osoa aurkitzen du.

« Euskal Herri Digitala » labelak behar du tresna sustatzaile edo biderkatzaile gisa IKTak erabiltzen dituzten garapen praktika onak agertzen lagundu.

Interneten Euskal Herriaz eginak diren aipamen eta euskal « nortasuna » baliatzen dituzten guneen emendatzearen aurrean, garrantzitsua da ekimen berriztatzaileak irakurgarriak bihurtzea eta Euskal Herri Digitala pixkanaka labelizatuak izanen diren lurraldearen kalitate igoeraren alde zinez aritzen diren eragileen urtekari bat ([www.pays-basque.eu](http://www.pays-basque.eu)) eratzea. Gune horren lehen helburua da eragile edo ekimen berriztatzaileak Europa mailan irakurgarriak bilakaratzea. Eleaniztun moduan garatua izanen da beraz (Frantsesa, Euskara, Gaztelera eta Euskara).

« Euskal Herri Digitala » labelak beraz, ondokoa bermatzen du :

- **Kalitatea**, IKTen praktika onen eta maila horretako berrikuntzen argitaratzearen bitartez
- **Federatzea**, eragileak sarean sartuz interes komun batzuen inguruan
- **Irakurgarritasuna**, urtekariak eskainitako identifikazio laster bati esker
- **Marka irudia**, Euskal Herriaren balore azkar eta partekatuetan oinarritzen den ondare baten balorizazioa eta sustapenaren bidez.

Ezaugarri hauek, labelizatuei bezainbat lurraldeari ere aplikatzen dira, guzien erakargarritasuna eta lehiarako gaitasuna azkartuz. Markaren garapenak Euskal Herria eta eragileen eragina garatuko du, lurraldea sorkuntza eta berrikuntzarako leku pribilegiatu bat bezala agertuz.

« Euskal Herri Digitala » labela eragile guzietan zuzentzen zaie, Euskal Herriaren garapena laguntzen duen proiektu edo ekimen bat ekartzen duten obra publiko edo pribatuak nagusi batzuk, besteak beste zerbitzu numerikoen eskaintzaren kalitatearen igoeraren bitartez eta zehaztutako balore giltza batzuen sustapenaren bidez. Borondatezko ekimen progresiboa da. Sareko ibilimolde baten gainean oinarriturik, marka

hobekuntza iraunkorraren printzipioaren arabera garatua izanen da berrikuntza ekonomia horren bilakaera lasterrei aurre egiteko.

Erreferentzi marko ezberdinak landuak izan dira nazional edo herrialde mailan, Interneten erabilpen hiritar edo profesional saileko praktika onak sustatu eta hedatzeko, hauen ondorioak Euskal Herri mailan garatu behar baitira lurraldea kalitatean igoarazteko. Adibide gisa eta beste batzuk ez aipatuz :

- **Internet Hiriak labelak** ([www.villes-internet.net](http://www.villes-internet.net)) Internet hiritar (IKTak eta haien erabilpena publikoari erraztuz, administrazioa biztanleriaren zerbitzuko tokiko demokrazia) mailan eredarriak diren erakunde publikoak omentzen ditu;
- **Net Publiko ituna** (Internet denentzat) lurraldeko erakundeei buruz (<http://www.delegation.internet.gouv.fr/chrge/Charte-Netpublic.pdf>) Interneten erabilpenerako Ordezkaritzak garatua hurbiltasuna eta deszentralizazioaren aldeko Interneten eskuragarritasun publikoaren politika arraorientatzeko, baita lan bilaketa, jakitatea, kultura eta formakuntzarako erabilpen publikoa sustatzeko;
- **Ekonomia numerikoarenganako konfiantza legea** ([http://www.legifrance.gouv.fr/loi\\_eco\\_num](http://www.legifrance.gouv.fr/loi_eco_num)), 2000/31/CE europar zuzentarauaren transposizioa, komertzio elektronikoa garatzeko Europar Batasunaren baitan eta pertsona fisikoen babesteko pertsonal mailako datuen tratamenduari buruz ;
- « **Syntec Croissance Editeurs** » **labela**, editoreentzat, ofizialki 2007ko irailan abiatua eta profesional ganbarak eskainirik, lortzen duten enpresentzat zinezko bermea da (Ekonomia, Finantza Teknologian ebaluatuak). Horri esker, besteak beste, garapen azkarreko enpresa berriztatzaile gisa onartuak dira profesioa eta inbestitzaileen partetik ... ([http://www.syntec-informatique.fr/import/CP\\_assises\\_logiciel.pdf](http://www.syntec-informatique.fr/import/CP_assises_logiciel.pdf));
- **Eurocert labela** : kalitateko lehen europar labela eskuragarriak diren Web gunetarako, 2007ko ekainean abiatu dute Belgikako BrailleNet elkarteak, **I.O.N.A.**, eta Espainiako **Fundosa Teleservicios**ek. Honen helburua da erakunde batek ala besteak labelizatu gune orori onarpen bat ematea hiru herrietan (<http://www.euracert.org/fr/apropos/label/>);
- **Interneten erabiltzaileei komuna den etika eta zibiltate ituna** Giza eskubideen nazio arteko Akademiak landua Hezkunde nazionalako Interneten erabilpenerako Ordezkaritzarekin lankidetzan([www.droits-fondamentaux.prd.fr/charte/charte.pdf](http://www.droits-fondamentaux.prd.fr/charte/charte.pdf)).

Erreferentziatzko idazki nazional horiei **et Akitania Herrialdeko erabilerraztasun eta kalitateko Internet Ituna** gisako beste ekimen batzuk gehitzen zaizkie (<http://charte-internet.aquitaine.fr/>), hauen helburua delarik :

- Internet guneen egokipena laguntzea erabilerraztasun mailako lege eta estandarrekin,
- Internet guneen erabilgarritasunari begirako kalitateko praktika onen kontutuan hartzea zaintzea , bai eta ere haien ibilmolde, edukin eta proposatzen dituzten zerbitzuei begira ;
- Internet guneen kalitatea eta eskuragarritasuna hunkitzen dituzten eskakizunak, testuak, estekak eta informazioak ezagutaraztea ;
- Gehiengoari eskuragarri eta kalitateko tokiko zerbitzu eta edukinak Webean ager daitezen laguntzea.

### 3 – Abantailak labelizatuarentzat

Labelizazioak zombait abantail ekarriko dizkio ekimena eta lurraldean engaiatua den erakundeari. Hara nola, ekimen horretan engaiatzea zer den :

- **kalitateko berme bat** : erakundeak agerian ezartzen ditu haren IKT praktika onak eta sail horretan ekartzen dituen berrikuntzak. [www.pays-basque.eu](http://www.pays-basque.eu) urtekarian sartzeak irakurgarritasun hobea eta publiko/bezero/eragileengandikako pertzepzio handiago bat segurtatzen dizkio.
- **Konfiantza berme bat** : « Euskal Herri Digitala »ren baloreei lotzeak erakundeari, baina ere lurraldeari haien erakargarritasunaren hobekuntza ekartzen duen marka-irudi berri bat ematen dio

- **Balore irabazi bat** : erakundea sare batetan sartzen da, jakitate, egiten-jakite trukaketa bat bermatuz, marka-irudi bat lortzen du (horrela besteengandik bereizten lagunduko duen nortasun propio bat garatuz). Azken hau diru kopuru garrantzitsu batetara heltzen ahal da eta erakundeari balio erantsi azkar bat emanen dio.

Horrela, « Euskal Herri Digitala »ren bitartez, labelizatuak :

- Posizionamendu azkar bat aldarrikatzen du, horrela bereizteko eta haren borondatea, dinamismo numerikoa eta « kalitatean igotzeko » gogoia agertzeko, hobekuntza iraunkor baten asmoz ;
- Baimen batzordean ordezkatuak diren erakunde publiko, elkarte, ekonomia munduko eragileek onartzen duten kalitateko lurralde label baten inguruko elkargo baten partaide bilakatzen da eta horrela ondasun komun bat partekatzen;
- Onarpen/fama azkar bat lortzen lagunduko duen sare bat aukeratzen du eta horren bidez, beste labelizatu batzuekiko trukaketez baliatzea numeriko eta numerikoaren bitartezko garapen estrategia mailan ;
- Euskal Herria lurraldea kalitatean igoarazteko herrialde edo nazional mailan eginak diren indarren sustapena bereziki laguntzen du, Internet hiritarra eta profesionalaren erabilpen onak lehenestera joanen diren ekimen adierazgarriak hedaraziz ;
- Molde zabalean sustatua eta zerrendatua izanen den [www.pays-basque.eu](http://www.pays-basque.eu)-n garatua den Euskal Herriko ekimen berriztatzaileen urtekari batetan agertzen da. Urtekari hau « nazio arteko » mailako atari bat da lurraldeko kalitate numerikora buruz. Alabaina, eremu izen azkar bat izanik eta lau hizkuntzatan garaturik, irakurgarritasun bat ekartzen dio labelizatuari. Hobeki ikusia izanik, marka-irudi horrek lagunduko du haren fama handiarazteko.
- Labelaren balore komun eta partekatuei lotzen da (ikus. **1** –« **Euskal Herri Digitala** » **labelaren baloreak**)
- Markaren baloreen balorizazioaren sustapenean parte hartzen du, labelaren erabilpena, komunikazioa, balore horiek aitzinean emanez haren aktibitateen baitan eta euskararen promozioaren bidez.
- Haren erakunde eta lurraldearen balorea emendarazten du.
- Ekimen original eta berriztatzaile batetan engaiatzen da. Alabaina, « Euskal Herri Digitala » labela aitzindari eta abangoardista da. Erakunde labelizatuak horrela konkurentziari aurre egiteko abantail bat lortzen du eta haren lehiakortasuna hobetzen.

#### 4 – Labelaren emakidaren iraupena

« Euskal Herri Digitala » labela 24 hilabeterako emana da, baimen Batzordeak aldeko iritzia eman ondoren.

Erabiltzeko eskubidea hasten da emakidadunak (Agence Pays Basque des NTIC/IKTB Euskal Herriko Agentzia) « Euskal Herri Digitala » markaren lizentzia kontratuan jarri duen egunetik.

Garai horretan, kontrola bat ala gehiago burutuak izaten ahalko dira, hautagai labelizatuaren proiektuen bilakaera, eta « Euskal Herri Digitala » labelaren baimen baldintzen errespetua neurtzeko gisan.

24 hilabeteren buruan, « Euskal Herri Digitala » markaren erabilpen eskubidearen onuradunari diagnostiko berri bat eginen zaio ikusteko hautagaitza dozierrean zehaztuak ziren engaiamenduak errespetatuak izan direla baieztatzeko. Hala ez bada egiten, ezingo du labelizazio berri bat eskatu 12 hilabetez.

#### 5 – Labelizazio prozesua

Ez da aitzinetik ezer eskatzen hautagai izateko ez bada, material ikuspuntu batetik, Internet konexio bat ukaitea prozesua linean segitzeko, eta proiektu numeriko batetan sartua izatea. Labelizazio prozesua, soilik hautagaiaren aldarrikapenetan oinarritzen da eta ez da egiaztagiririk behar

« Euskal Herri Digitala » labela ez da besteak kanporatu nahi dituen labela bat baina Euskal Herria Interneten « ikustera » emateko proiektu eredarriak eta praktika onen ikusgarritasuna emendaraziko duen zeinu bereizle bat.

Labelizazio prozesua zuzenki aNTIC Pays Basque linean egiten da eta aNTIC Pays Basque da hautagaiaren solaskidea haren labelizazioari dagozkion gauza guzientzat.

Sei etapa segitu behar dira hautagaitza aurkezteko, [www.pays-basque.eu](http://www.pays-basque.eu) gunean aurki daitezkeen elementuetatik abiatuz :

1. Labelaren erabilpenerako baimen baldintzak irakurri eta onartu ;
2. Sinaletika fitxa bat eta labelizazio irizpidez osatua den hautagaitza dozierra bete ;
3. Labelaren baimen Batzordeari hautagaitza aurkeztu ;
4. 120 euroko\* parte hartze gastuak ordaindu, labela eta [www.pays-basque.eu](http://www.pays-basque.eu) urtekariaren sustapen ekintzak 24 hilabetez estaltzeko ;
5. « Euskal Herri Digitala » markaren erabilpen lizentzia kontratua bete eta izenpetu ;
6. Markaren itun grafikoa integratu haren Internet gunean edota beste euskarrietan.

Hautagaiak kandidatura dozierra bete orduko, bi egoera aurki daitezke Euskal Herri Digitala labela emateko :

1. hautagaiak ongi bete du kandidatura dozierra eta aldarrikatzen du labela bat duela IKT mailan edo sare bateko partaide dela : aNTIC Pays Basquek informazioak kontrolatzen ditu, dozierra balidatzen, eta baimen Batzordearekin ados eman eta, labela ematen dio ;
2. hautagaiak ongi bete du kandidatura dozierra eta aldarrikatzen du ez duela labelarik IKT mailan edo ez dela sare bateko partaide : hautagaiaren dozierra zehaztu eta, Baimen batzordeko kideek bozkatzeko dute jakiteko labela ematen dioten ala ez.

## 6 –« Euskal Herri Digitala » labelaren erabilpen baldintzak

haien hautagaitza aurkez dezaketen pertsona eta sozietateei labela emateko baldintza da baimen baldintza horien klausulak eta baimen Batzordea gerta daitezkeen auzien arbitroa izan dadin baita ere baimen Baldintzen egokitzeko erresalburik gabe eta idatziz onartzea.

« Euskal Herri Digitala » markaren erabilpen ez eskusiboaren baldintzak emakidaduna, Agence Pays Basque des NTIC (aNTIC) eta lizentzidunaren artean izenpetua den kontratu batetan zehaztuak dira. « Euskal Herri Digitala » markaren erabilpenaren eskubideak, labelaren erabilpen komertzial oro baztertzen du.

Labelizatuen zerrenda, une oro ikus daiteke [www.pays-basque.eu](http://www.pays-basque.eu) gunean.

## 7- Argitalpenaren edukina eta itzulpena :

Labelizatu bakoitzaren izena [www.pays-basque.eu](http://www.pays-basque.eu) gunean agertuko da, une oroz alda eta gaurkotu dezakeen aurkezpen fitxa baten bitartez, linean aurkitzen ahal den inprimaki baten laguntzarekin.

---

\* Aurkeztutako dozierra ez balitz labelizaturik, labela eta [www.pays-basque.eu](http://www.pays-basque.eu) gunearen sustapenerako ordaindu duen 120 euroko txekoa itzuliko zaio hautagaiari.

[www.pays-basque.eu](http://www.pays-basque.eu) gunea, hasieran, Frantsesez garatua izanen da. Urtekari eleaniztun gisa, labelizatuari, gunearen euskara, gaztelera eta ingelesezko bertsioetan agertzeko aukera ere eskaintzen zaio.

Horrela, Interneten duen erreferentziazioa eta irakurgarritasuna nazio artekotu nahi lukeen labelizatu orok, beharrezkoa diren hizkuntz elementuak horni ditzake. Hauek, berehala sartuak izanen dira, aurkezpen fitxa nahi diren hizkuntza guzietan deklinatu ahal izateko.

## **8 – Erantzukizunak**

Inolaz ere, ez zaie « Euskal Herri Digitala » markaren partaide, baimen Batzordearen kide, Euskal Herriko aNTIC Pays Basqueko administratzaileei erantzukizunik lepora, labelizazio lortu dutenek ez badituzte errespetatzen arau legalak, erreglementarioak, komertzialak eta etikoak segurtasun eta konfiantza numeriko mailan edo zilegi ez diren ekintzak burutu balituzkete.

Bestalde, labelizazioak behartzen du labelizatua Euskal Herri numeriko erreferente baten izendatzea.

Pertsona baliabide bat hautatua da erakunde labelizatuaren baitan labelizazioaren obratzearen arduraduna izateko. Erakunde labelizatu orok behar ditu, bere baitan, labelaren engaiamenduen errespetuarengan eragin bat duen pertsona guzien ardurak zehaztu.

Etapu hau biziki garrantzitsua da kalitateak erakundeko zerbitzu guzien artean partekatua duen ardura kolektibo bat izan behar baitu.

Erreferente hau, baimen Batzordea eta labelizazio prozesuan inplikatuak diren langileen solaskide pribilegiatua da. Bestalde, engaiatzen da Euskal Herri numerikoren baimen Batzordeak antolatutako bilkura eta hitzorduetan parte hartzera.

## **9 – Labelaren erreprodukzio eta aipamenaren modalitateak**

Label grafiko espezifiko bat ezarria izan da adierazteko erakunde batek baimen Baldintzak izenpetu dituela, labela horretarako baizik ezin daiteke erabili.

« Euskal Herri Digitala » labelaren erreprodukzio modalitateak, baimen baldintza hauetako 10. artikuluan agertzen den markaren itun grafikoan zehaztuak dira.

Labela lortzen duena, bestalde, engaiatzen da esteka bat abian jartzea haren Internet gunea eta [www.pays-basque.eu](http://www.pays-basque.eu) ekimenaren gune atariaren artean, labelizatuak bere gunean telekargatu beharko duen itun grafikoan emana den bezala. Horren bitartez, aNTIC Pays Basquek informazioak bilduko ditu [www.pays-basque.eu](http://www.pays-basque.eu) gunearen bisitariei buruz eta labelaren famaz, Informatika eta Askatasunak legearen errespetu mailan.

Duda bat badu edo argibide bat behar badu labelaren erreprodukzio eta aipamenari dagokionez, Euskal Herri Digitalaren ekimenaren idazkaritzaz arduratzen den IKTBarengana jotzera engaiatzen da.

**Labelak behar du agertu labelizatuaren gunean ikusgai, irakurgarri, uniforme moldean eta markaren itun grafikoan adierazia den moduan.**

## 10 – Itun grafikoa eta komunikazio elementuak

Markaren eraikuntzaren alde mobilizatuak diren eragileek zehaztu dute « Euskal Herri Digitala »ren unibertso grafikoa. Lankidetzaren jarrera baten ondorioa den deklinazio grafiko horretan, sinbolo azkarrak aurkitzen dira. Hauek, [www.euskalherridigitala.net](http://www.euskalherridigitala.net) labelaren gunean, « Labelaren sinboloak » sailean, zehaztuak dira.

« Euskal Herri Digitala » logoak marka umbrela bat osatzen du. Hau deklinatua izan da bai [www.pays-basque.eu](http://www.pays-basque.eu) Euskal Herriko urtekari numerikorako, baina ere, webari egokitua den logo baten diseinuaren bidez, labelizatuaren Internet gunetan sartua izateko.

**Azken honek behar du nahitaez agertu labela lortzen dutenen gunetan eta nahi badute, dituzten komunikazio beste dokumentuetan. Zinezko zeinu bereizle gisa, gune labelizatuak identifikatzen ditu, baina labelizatuaren arteko onarpen elementu bat ere osatzen du, « Euskal Herri Digitala » markaren « sarea » balorea konkretuki adieraziz.**

Webarako egokitua den logoa **png formatuko irudi bat da, 73x84 px neurrikoa**, bi koloretan eskuragarria dena, labela lortu duenaren Internet gunean sartzeko beharrezkoa den html kodea zehaztua izanik.



Esteka bat jarria izanen da logoa eta [www.pays-basque.eu](http://www.pays-basque.eu) urtekariaren guneari artean. Horren bitartez, aNTICek informazioak bilduko ditu [www.pays-basque.eu](http://www.pays-basque.eu) guneari bisitariei buruz eta labelaren famaz, Informatika eta Askatasunak legearen errespetu mailan.

Labelizatuak Euskal Herri Digitalaren irudia osoki erabiltzeko aukera izan dezan, beste elementu grafikoak eskura ditzake :

- [www.pays-basque.eu](http://www.pays-basque.eu) urtekariaren aipamena egiten duten 468x60, 120x140, 120x90 et 88x31 neurriko iragarki bandak.



- Euskal Herri Digitalaren logoa ondoko formatuan :
  - o .ens, inprimaketa euskarriarako (Afitxa, liburuxka, flyers...)
  - o .png 400x467px neurrikoa dokumentu idatzietarako (adib : word fitxategian txertatzea)

Labela lortuko duenak beraz, « Euskal Herri Digitala »ren elementu grafiko eta komunikaziorako elementu ezberdinak aurkitzen ahalko dituen eremu seguruan sartzeko aukera izanen du. Horrela, ondoko hauek aurkituko ditu :

- itun grafikoen elementuak komunikazio euskarri ezberdinetarako,
- labela eta ekimenaren aurkezpen bat,
- « Euskal Herri Digitala » labelaren abantailak ekartzen dituen argumentario bat.

**Dokumentu guztiak ondoko helbidean eskuratu eta telekargatzen ahalko dira:**  
[www.euskalherridigitala.net/category/espace-labelises/](http://www.euskalherridigitala.net/category/espace-labelises/)

## 11 – Labelaren kentzea

Euskal Herri Digitalaren erreproduzio modalitateak 9. artikuluan zehaztuak dira. Enpresa labelizatua engaiatzen da labelaren promozioa egitera bere internet gunean, bisitaria [www.pays-basque.eu](http://www.pays-basque.eu) gunera igortzen duen hiperesteka batekin. Baimen baldintza horiek onartuz, hautagaiak arauak ximenki errespetatzeko engaiamendua hartzen du.

Euskal Herri Digitala labelaren erabilpen eskubidearen etete edo kentze orok labela erabiltzeko edo aipatzeko debekua eragiten du.

Labelizazioaren lortzeko hautagaitza aurkezten duenak molde boluntario eta beneboloz egiten du. Ez da inolako labelaren erabilpen komertzialik onartuko. Baimen Baldintza hauek izenpetzen ez duten erakundeek edota hau kendua ukan dutenek, ez dute inolako eskubiderik « Euskal Herri Digitala » label grafikoaren erabiltzeko. Gehiegizko erabilera bat gertatuz gero, aNTICek Baionako komertzio Auzitegira joko du.

Baimen Baldintzetan idatziak diren engaiamenduak ez badira errespetatuak, baimen Batzordea ordezkaten duen aNTIC Pays Basquek Euskal Herri Digitala labela kenduko dio labelizatuari, hertsatze baten balioa duen hartu agirirekiko gutun ziurtatu bat igorri ondorengo hilabete bateko epearen ondotik.

## **12 – Baimen batzordearen zeregina**

Lurralde honetako indar biziez (enpresa, elkarte, tokiko erakunde publiko) osatua den baimen Batzorde bat abian jarria da labelaren emateko, ustezko arau-hausteak ikertzeko, gerta daitezkeen salaketak kudeatzeko. Batzordeak, baimen Baldintzen aplikazio zuzena zaintzen du. Baimen Batzordeko kideen zerrenda edozoin momentuan aurki daiteke [www.pays-basque.eu](http://www.pays-basque.eu) gunera joz.

## **13 – Harreman eta argibideak**

Euskal Herri Digitala labela  
Idazkaritza : aNTIC Pays basque  
Izarbel Pabelloia  
Côte basque Teknopoloa  
64210 BIDARTE

Tél : 05.59.41.53.94  
Fax : 05.59.41.53.59  
[contact@paysbasquenumerique.net](mailto:contact@paysbasquenumerique.net)